

Merkataritza Sozietateen Estatistika
2024ko otsaila. Behin-behineko datuak

Otsailean 82 merkataritza-sozietate sortu dira Nafarroan, hau da, aurreko urteko hil berean baino % 29,3 gutxiago

Sozietate berriak eratzeko harpidetutako kapitalak % 52,6ko igoera izan du 2023ko otsailarekin alderatuta

2024ko apirilaren 11

Otsailean 12 merkataritza-sozietate desegin dira Nafarroan, hau da, aurreko urteko hil berean baino % 93,5 gutxiago

SOZIETATEAK SORTZEA

Sorrera. 2024ko otsailean, 82 merkataritza-sozietate sortu dira Nafarroako Foru Komunitatean, hau da, aurreko urteko hil berean baino 34 gutxiago. Beraz, % 29,3ko jaitsiera izan da. Sozietate berriak eratzeko harpidetutako kapitala 5.678 mila eurora iritsi da, eta aurreko urtean, berriz, 3.720 mila eurora. Beraz, % 52,6ko igoera izan da. Harpidetutako batez besteko kapitalak (69,2 mila euro) % 115,9ko igoera izan du.

KAPITAL-ZABALKUNTZA

Kapital-zabalkuntza. Otsailean, 42 merkataritza-sozietatek zabaldu dute kapitala, hau da, aurreko urteko otsailean baino 13 gehiagok. Zabalkuntzetan harpidetutako kapitala 9.137 mila eurora iritsi da, eta 2023ko otsailean, berriz, 5.466 mila eurora iritsi zen. Eragiketa horietan harpidetutako batez besteko kapitala 217,5 mila euro izan da, eta % 15,4ko igoera izan du urteko tasan.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00




SOZIJATEAK DESEGITEA

Desegitea. Otsailean 12 merkataritza-sozietate desegin dira. Aurreko urteko hil berean, berriz, 184 desegin ziren.

1. GRAFIKOA

Nafarroan sortutako eta desegindako merkataritza-sozietateak (zifra absolutuak)



Iturria: Nastat, INEren Merkataritza Sozietateen Estatistikan oinarrituta
 Datuak behin-behinekoak dira 2023ko otsailetik

1. TAULA

Sortu diren, kapitala zabaldu duten eta desegin diren merkataritza-sozietateak.
 2024ko otsaila.

| | Guztira | Hileko aldakuntza (%) | Urteko aldakuntza (%) | Metatutako urteko aldakuntza (%) |
|--|---------|-----------------------|-----------------------|----------------------------------|
| Sortutako merkataritza-sozietateak | | | | |
| Kopurua | 82 | -32,8 | -29,3 | -2,4 |
| Harpidetutako kapitala (mila €) | 5.678 | -52,2 | 52,6 | 239,5 |
| Harpidetutako batez besteko kapitala (mila €) | 69,2 | -28,8 | 115,9 | 247,8 |
| Kapitala zabaldu duten merkataritza-sozietateak | | | | |
| Kopurua | 42 | 7,7 | 44,8 | 20,9 |
| Harpidetutako kapitala (mila €) | 9.137 | -65,6 | 67,2 | 252,6 |
| Harpidetutako batez besteko kapitala (mila €) | 217,5 | -68,0 | 15,4 | 191,7 |
| Desegin diren merkataritza-sozietateak | | | | |
| Kopurua | 12 | 20,0 | -93,5 | -89,8 |

Iturria: Nastat, INEren Merkataritza Sozietateen Estatistikan oinarrituta Behin-behineko datuak



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

ESPAINIAKO DATUAK

Espainia. Espainia osoan, otsailean sortutako merkataritza-sozietateen kopuruak % 7,9ko igoera izan du 2023ko hil berarekin alderatuta. Sozietate horiek eratzeko harpidetutako kapitala 527 milioi eurotik gorakoa izan da, eta % 53,1eko igoera izan du urtean. Harpidetutako batez besteko kapitalak (48.182 euro) % 41,9ko igoera izan du. Desegindako merkataritza-sozietateak 2.545 izan dira, hau da, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoak baino % 5,9 gutxiago.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Merkataritza Sozietateen Estatistika. 2024ko otsaila.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

